

## GOIZIAN ARGI HASTIAN

Pierre Bordazarre Etxahun-Iruri  
(Iruri, Zuberoa, 1908 – Paue, Okzitania, 1979)

Euskara batuan

Goizean argi hastean, ene leiho hegian, / Txori bat pausatzen da eta goratik hasten kantan. /  
Txori ederra, hain alegera, entzuten haudanean, / Ene bihotzeko tristura laster zoak airean.

Ene txoririk maiteena, zergatik [jin](#) haiz nigana, / [lratzarri](#) nauk nuelarik ametsik ederrena. /  
Jinik hain goizik, uste huen hik banuela [anitz](#) pena? / Ez, ez, habil kontsolatzera [malurusago](#)  
dena.

Hitzak eta musika: Etxahun-Iruri  
Etxahun-Iruri, *Khantan*, Jakes Larrondo agertzailea, 1977.  
<https://armiarma.eus/emailuak/mizka/irur00.htm>